

2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION BARNE PROMOZIO MODALITATEKO OHIKO PROZEDURAREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIAREN AKORDIOA (2022ko URRIAREN 20ko EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA).

ADMINISTRARIEN ESKALAKO DEIALDI ESPEZIFIKOAREN BEHIN BETIKO AZKEN KALIFIKAZIOA.

ESKAINTZEN DIREN LANPOSTUAK AUKERATZEKO EPEA IREKITZEA.

2024ko apirilaren 23an lan-eskaintzen atarian argitaratu zen barne-promozioa modalitatearen bidez karrerako funtzionario izateko ohiko hautaketa-prozesuko epaimahaiak hartutako erabakia, deialdi espezifikoen behin-behineko azken kalifikazioa onartzen zuena, bai eta erreklamazioak aurkezteko zazpi egun balioduneko epea ere irekitzen zuena.

Barne-promozioko modalitatean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuko Administrarien Eskalaren deialdi espezifikotan deitutako lanpostuen zerrenda argitaratu zen 2024ko apirilaren 12an Gerentearen erabakiaren bidez, eta apirilaren 30eko zuzenketa.

8.5 oinarri orokorraren arabera, *“Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, argitara emango dira hautaketa prozesuko azken eta behin betiko kalifikazioak”.*

Era berean, 8.6 oinarri orokorrak adierazten du *“deialdi espezifikoko bakoitzeko hautagaien behin betiko azken kalifikazioa argitaratu ondoren, lanpostuak aukera beharko dira, eta horretarako epea zazpi (7) egun baliodunekoa izango da”.*

Beraz, epaimahai kalifikatzaileak aipatutako hautaketa-prozesuko deialdi espezifikokoaren behin-behineko kalifikazioaren aurka erreklamaziorik aurkeztu ez direla ikusita, deialdi horretako zazpigarren oinarri espezifikotan aurreikusitakoarekin bat etorritik, honako hau

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Administrarien Eskalako deialdi espezifikokoaren gaindituen azken eta behin betiko kalifikazioa onartzea, lortutako puntuazioaren arabera eta hautaketa-prozesuko fase guztietako nota partzialak jarrita.

BIGARRENA.- Lanpostuak aukeratzeari buruzko 8.6 oinarri orokorra betetzea eta zazpi balioduneko epea irekitzea lehiakideek eskainitako lanpostuak aukera ditzaten.

Lanpostuak bide elektronikoz aukeratzeko, III. eranskinen 8.6.1 oinarri orokorra hartuko da kontua, *“Lan Eskaintzen Atarian eskuragarri dagoen eskari orria beteta. Eskaria behin beteta, egiaztagiria eskuratuko da. Eskariarekin batera lanpostuaren betebeharrak espezifikoki egiaztatzen diren agiriak aurkeztu behar dira, halakorik behar*

izanez gero. Adierazitako epearen barruan betebeharrak espezifikokoak egiaztatzeke agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du”.

8.6.2 oinarri orokorraren arabera, *“Lanpostuen zerrendan talde bitara irekita dauden lanpostuetako titularrak kasuan kasuko eskalan sartzen direnean, beren lanpostuan jarraitu ahal izango dute (lanpostuak aukeratzeko eskarian horrela adierazi badute); lanpostuak lanpostuen zerrendan daukan hornikuntza sistema hautaketa prozesuko puntuen hurrenkerari jarraikiz lanpostuak esleitzeko prozesuan, bat etorrita abuztuaren 2ko 30/1984 Legeko 22.1 artikuluko azken aurreko paragrafoarekin”.*

HIRUGARRENA.- 8.6.3 oinarrian adierazitakoa kontuan hartuta (*“Hautaketa-prozesuan parte hartzetik eratorritako eskubideak galduko dituzte lanpostu-hautaketa 8.6 oinarri orokorraren arabera egiten ez dutenek”*), ulertuko da ezen, eskaintako lanpostu kopuru nahikoa hautatu ez dutelako (eskakizun espezifikokoak eta/edo derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna betetzen dutelako), azkenean lanpostu horietakoren bat esleitu ezin zaien izangaiek, eskubide hobea duten izangaiei hautatutako lanpostuak esleitu zaizkielako, prozesuan parte hartzeari uko egiten diotela.

LAUGARRENA.- Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian (...) eta UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea (<https://www.ehu.eus/es/web/azp/barne-promozioa-22>); gaitutuen azken eta behin betiko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

BOSGARRENA.- 7.4 oinarri orokorraren arabera, *“Epaimahaiaren erabakien kontra egin ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1eko)”*, administrazio-bidea agortzen ez duen erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke UPV/EHUko Gerenteari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtso hori UPV/EHUren egoitza elektronikoa, horretarako prestatutako UPV/EHUko erregistro-arloko laguntza-bulegoetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan aurkeztutako idazki baten bidez aurkeztu behar da.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan.

Epaimahaiko idazkaria